

IRAKASKUNTZA-GIDA 2020/21

Ikastegia 231 - Psikologia Fakultatea

Zikl. Zehaztugabea

Plana GPSICO20 - Psikologiako Gradua

Ikastaroa Zehaztugabea

IRAKASGAIA

25083 - Lanpostuen Ebaluazioa, Errendimendua eta Hobekuntza

ECTS kredituak: 4,5

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Irakasgaia Lanaren, Giza-baliabideen eta Erakundeen psikologiako minorrean kokatzen da. Erakundeetan pertsonak kudeatzeko eta zuzentzeko oinarritzko ezagutzak eta tresnak lantzea du helburu, lanpostua (eginkizunak) eta portaera (errendimendua) abiapuntutzat hartuta.

Etorkizunean Erakundeetako psikologo gisa aritu nahi duenak ezagutu beharreko arloa du. Eta beste edozein eremutan lan egin nahi duen psikologoak ere ezagutza baliagarria topatuko du.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Erakundearen arazoak eta beharrak identifikatzen jakitea eta lanpostuen analisi/balioespenerako eta errendimenduaren ebaluaziorako helburuak definitzeko eta plana egiteko gai izatea.
2. Lanposturako edo jarduerarako garrantzitsuak diren aldagaiak eta prozesu kognitiboak, emoziozkoak eta portaerazkoak deskribatzeko eta neurtzeko gai izatea.
3. Lanpostuen analisirako eta balioespenerako nahiz jardueraren eta errendimenduaren ebaluaziorako tresnak hautatzen eta erabiltzen jakitea.
4. Lanpostuen analisi/balioespenari eta jardueraren ebaluazioari buruzko ahozko eta idatzizko txostenak egiteko gai izatea.
5. Hartzaileei lanpostuei edo jarduerari buruzko feedbacka era egokian eta zehatzean ematen jakitea.
6. Lanpostuen eta errendimenduaren ebaluazioaren inguruko iturri dokumentalak erabiltzeko gai izatea, eta informazioa eskuratzeko estrategiak ondo kudeatzea.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

1. Lanpostuen eta errendimenduaren balioespena giza baliabideen kudeaketan. Pertsona-lanpostua egokitzea.
2. Lanpostuen analisia eta deskribapena (LPA/LPD).
3. Lanpostuen balioespena (LPB) erakundeetan: metodoak eta teknikak.
4. Langileen errendimenduaren eta jardueraren ebaluazioa erakundeetan: metodoak eta tresnak.

GELAKO PRAKTIKAK: Lanpostuak aztertze eta baloratzeko ariketak egingo dira, prozedura horiek ulertu eta lantzeko. Bi ariketa praktiko jasoko dira: lanpostu baten deskribapena eta lanpostuen balorazio bat.

TAILERRAK:

Lanpostuen diseinuaren eta lanaren emaitzen arteko harremana aztertze ikerketa-proiektua diseinatu eta landuko da taldean. Lanaren oinarria Lanpostuen ezaugarrien eredua izango da. Ikerketa proiektua/txostena idatzi eta defendatuko da gelan.

METODOLOGIA

Eskola teoriko eta praktikoetan honelako metodologia erabiliko da:

- Edukien azalpena, dagokion bibliografia oinarri hartuta
- Edukiei buruzko talde-eztabaida
- Edukiak aztertu eta zalantzak argitzea
- Ariketak egitea
- Kasu praktikoak landu
- Ikerketa/esku-hartzea pentsatu eta jorratu

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	22		10				13		
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	33		15				19,5		

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 50
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 5

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO MISTOAREN SISTEMA:

- Lan indibidualak (gelako praktikak) (% 20): irakurgai osagarriak, ariketak eta kasu praktikoak landuko dira. Bi praktika-lan jaso eta ebaluatuko dira: lanpostu baten deskribapena eta lanpostuen balorazioa.
- Taldeko lana (tailerrak)(% 30): Lanpostuaren ezaugarrien eredu teorikoa abiapuntu hartuta, ikerketa-lan bat egin eta txostena idatzi behar da. Txostenak hurrengo atalak barneratu behar ditu: helburuak, garapen teorikoa, hipotesiak, metodoa, emaitzak, eztabaida eta bibliografia-erreferentziak. Lanaren aurkezpena ere egingo da.
- Test motako azterketa (% 50): bukaeran test motako proba egingo da. Irakasgaia gainditzeko, azterketa zein praktikak gainditu behar dira.

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA:

- Test motako azterketa (% 50)
 - Azterketa praktikoa (% 50)
- Irakasgaia gainditzeko, testa zein azterketa praktikoa gainditu behar dira.

Ebaluazio-deialdiari uko egiteko, nahikoa izango da azken probara ez aurkeztea.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Fernández-Ríos, M. (1995). Análisis y descripción de puestos de trabajo. Madrid: Díaz De Santos.
Fernández-Ríos, M. eta Sánchez, J.C. (1997). Valoración de puestos de trabajo. Madrid: Díaz de Santos.
Muchinsky, P.M. (2000). Psicología aplicada al trabajo. Madrid: Thomson.
Orue-Echevarría, J. (1997). Manual de valoración de puestos y calificación de méritos: un método racional para la administración de los salarios. Bilbao: Ediciones Deusto.
Peiró, J.M. eta Prieto, F. (2002). Tratado de Psicología del Trabajo. Vol. I: La actividad laboral en su contexto. Madrid: Síntesis.
Quijano, S. (1992). Sistemas efectivos de evaluación del rendimiento: resultados y desempeños. Barcelona: PPU.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Byars, LL., eta Rue, L.W. (1997). Gestión de recursos humanos. México: McGraw-Hill.
Gómez-Mejía, L.R., Balkin, D.B., eta Cardy, R.L. (2001). Gestión de recursos humanos. Madrid: Prentice-Hall.
Ordóñez, M. (1997). Psicología del trabajo y gestión de recursos humanos. Barcelona: Gestión 2000.
Quijano, S. (Zuz.) (2006). Dirección de recursos humanos y consultoría en las organizaciones. Barcelona: Icaria.

Aldizkariak

- European journal of work and organizational psychology
Capital Humano
Revista de Psicología del Trabajo y las Organizaciones
Uztaro
Revista de Psicología Social
Revista de Psicología Social Aplicada
Journal of Applied Psychology

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://www.occupationalinfo.org/index.html>
<http://www.onetcenter.org/>

<http://www.ilo.org>

OHARRAK